



KONTAKLIK
IPUIN KONTALARIA

haziak

KontaKLIK aplikazioarekin asmatutako ipuinei beste bizitza bat emateko aukera daukazu. Hitzei, marrazkiak, argazkiak, ahotsa, testua eta mugimendua gehitu ahalko diozu. Osatu zure gogoko ipuin eta istorioak eta partekatu lagunekin edo zuk nahi duzunekin.

Baliabide honekin modu jostagarrian eta sormena landuz etxeokoen bestelako ekintzak egiteko aukera dago. Dokumentu honetan hainbat argibide eta ideia ematen dira.



Jarraian aipatuko den prozesu guztian haurra izan behar da gidari eta ikasketa zein sormen prozesuan askatasuna ematea proposatzen da. Arreta bidean jartzea gonbidatzen dizuegu, elkarrekin bizitzen ari zareten horretan.

Baliabidea esploratzen

Aplikazioa deskargatu eta esploratzen hasi. Bertan irudiak, pertsonaiak eta audioak dituzu baina zuenak ere sartu ditzakezue. Beharra ikusiz gero **hemen duzue** erabilera-gida azalpen zabalekin.

Sormenaren abiapuntua

Behin baliabidea ezagututa haurri zuen ipuina asmatzeko proposamena egin. Haurraren adina eta izaeraren arabera sarrera desberdina izango da baina, galdera zabal batekin ireki dezakezue sormenaren bidea: Zer kontatu nahi duzu?; Zein gai dugu azken egunetan buruan? edo aldendu gaitzen egun hauetan gertatzen ari diren gauzetatik, zer gustatuko litzaizuke orain? goazen istorio bat kontatzea!; Hartuko dugu ipuin bat eta gure modura, nahiko genukeen bezala kontatuko dugu?... Edonola ere zuk ezagutzen duzu haurra inor baino hobeto beraz, begirunez eta arretaz entzun bere nahia eta ekin sormen prozesuari modu ireki batean.

Sormen prozesua

Adinaren arabera sormen prozesua desberdina izango da. Politena bakoitzak bere bidea egitea da, inolako araurik jarraitu gabe, parte hartzaileek behar dutena errespetatuz... egoera kaotikoak, egituratutako urratsak, erritmo desberdinetakoak. Ez izan zalantzarik, hasi jolasa eta gozatu!

**KontaKLIK erabiliz
sortutako ipuina
sortu eta nahi izanez
gero partekatu!**

